Bestelako Xedapenak

OSASUN SAILA

691

AGINDUA, 2009ko urtarrilaren 27koa, Osasun sailburuarena, haur eta gazteei zuzendutako bizimodu osasungarrirako estrategiak identifikatzeko elementuaren diseinu lehiaketa deitzen duena.

Bizitza Osasungarrirako Estrategia (BOE) Osasun Sailaren ekimena da eta inpaktu sozial handia duten zenbait osasun arazori erantzuna emateko sailak duen arduratik sortu da. Estrategia honen ardatza osasunaren determinatzaile sozialetan eta bizimoduan esku-hartzea da.

Lehen fase batean, Osasun Sailak beharrezkotzat jo du haur eta gazteei zuzendutako ariketa fisikoa eta elikadura osasungarriaren sustapenari lehentasuna ematea, ohitura osasungarriak hartu eta heldutasunera heltzean manten ditzaten. Horretarako, funtsezkoa da osasunaren sustapenarekin zerikusia duten erakundeen parte-hartzea estrategiaren arrakastari egin diezaioketen ekarpenagatik.

Osasun Publikoko programa guztietan gertatzen den bezala, arrakasta, neurri handi batean, mezua publikoari heltzean datza; horregatik, erabakiorra da erraz antzemateko elementu bereizgarri bat aurkitzea.

Horregatik guztiagatik, Osasun Sailak ideia lehiaketa bat deitzen du bizimodu osasungarrirako estrategiak identifikatzeko elementuaren diseinurako, bere elementu ordezkaria izan dadin; eskola ikasleei zuzendutako lehiaketa izango da, talde hau baita lortu nahi diren neurrien jasotzaile nagusia.

Hori dela bide, honako hau

EBATZI DUT:

1. artikulua.– Xedea.

1.– Agindu honen bitartez Osasun Sailaren Bizimodu Osasungarrirako Estrategien elementu identifikatzailearen diseinuaren ideia lehiaketa deitzen da, haur eta gazteentzat.

2.– Sariak ematearen helburua Osasun Sailaren Bizimodu Osasungarrirako Estrategiari elementu identifikatzaile bat ematea da, estrategia hori identifikatu eta ordezkatuko duen elementua eta bizimodu osasungarriarekin zerikusi izan eta Sailak parte hartu eta laguntzen dituen jarduera guztietan erabilgarria izango dena.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE SANIDAD

691

ORDEN de 27 de enero de 2009, del Consejero de Sanidad, por la que se convoca un concurso para el diseño de un elemento identificativo de la estrategia de vida saludable.

La Estrategia de Vida Saludable (EVS) es una iniciativa del Departamento de Sanidad que nace de la inquietud por dar respuesta coordinada a distintos problemas de salud que tienen un gran impacto social. La intervención sobre los determinantes sociales de la salud y los estilos de vida son puntos clave en el abordaje de esta estrategia.

En una primera fase, el Departamento de Sanidad, ha considerado necesario priorizar la promoción de la actividad física y la alimentación saludable en la población infantil y juvenil, adoptando hábitos saludables que se mantengan en la edad adulta. En este abordaje, es esencial la implicación de las organizaciones relacionadas con la promoción de la salud por su contribución al desarrollo de dicha estrategia.

Como todo programa de salud pública, su éxito va a depender en buena medida de que el mensaje que incorpora llegue al público, para lo que es determinante encontrar un elemento distintivo que lo haga fácilmente reconocible.

Por todo ello, el Departamento de Sanidad convoca un concurso de ideas para el diseño de un elemento identificativo de la Estrategia de Vida Saludable, que actúe como elemento representante de la misma, concurso dirigido a la población en edad escolar, por ser este colectivo el principal destinatario de las medidas que se persiguen.

En su virtud,

RESUELVO:

Artículo 1.– Objeto.

1.– Mediante la presente Orden se convoca Concurso de ideas infantil y juvenil para el diseño de un elemento identificativo de la Estrategia de Vida Saludable del Departamento de Sanidad.

2.– Los premios se conceden con el objetivo de dotar a la Estrategia de Vida Saludable del Departamento de Sanidad, de un elemento que identifique y represente a la misma y que pueda ser utilizado en todas aquellas actividades relacionadas con la promoción de vida saludable en las que el Departamento participe y apoye.

2. artikulua.– Hartzaileak.

1.– Lehiaketan, Euskal Autonomia Erkidegoko lehen hezkuntzako eta derrigorrezko bigarren hezkuntzako ikastetxe publiko eta pribatu guztiek parte hartu ahal izango dute.

2.– Lanak eskola eremuan egingo dira eta ikastetxeetako irakasleen gainbegiratze eta tutoretzapean. Taldelanean egingo dira eta lan bakarra onartuko da gelako.

3. artikulua.– Organo kudeatzailea.

Deialdi honen kudeaketa Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Osasun Publikoko zuzendariari dagokio.

4. artikulua.– Diseinuen ezaugarriak.

1.– Deseinuak bizimodu osasungarriaren garrantzia islatu eta transmititu behar ditu, pertsona guztientzat, eta jarduera fisikoari, elikadura egokiari eta inguru osasungarriei erreferentzia egiten dien elementuren bat txertatu beharko du.

2.– Diseinuak ondorengo ezaugarri teknikoak jarraituz egingo dira:

a) Elementu identifikatzailearen deseinua ilustrazio edo grafiko bat, testu bat edo bien konbinazio bat izan daiteke. Edozein modutan, testuak bost hitz baino gutxiago izan beharko ditu.

b) Parte hartzen duen gela bakoitzak lan bakarra aurkeztu ahal izango du, kartoi mehean edo paperean eginda, neurria ezingo da DIN A3 baino handiago izan, horizontala (42 cm x 29,7 cm).

c) Logotipoa, era ikusgaian, 7 x 2 cm-ra txikitu ahal izateko modukoa izango da.

d) Lanak egiterakoan edozein prozedura edo teknika erabili ahal izango da.

e) Lanak ezingo dira markoa ipinita aurkeztu.

f) Proposamenean ezingo da zentroa identifikatzen duen elementurik agertu.

g) Lan originalak baino ezingo dira aurkeztu.

5. artikulua.– Lehiaketaren modalitateak mailaka eta sarien zuzkidura.

1.– Lehiaketak bost kategoria izango ditu:

– 1. kategoria: lehen hezkuntzako lehen zikloa.

– 2. kategoria: lehen hezkuntzako bigarren zikloa.

– 3. kategoria: lehen hezkuntzako hirugarren zikloa.

– 4. kategoria: derrigorrezko bigarren hezkuntzako lehen zikloa.

– 5. kategoria: derrigorrezko bigarren hezkuntzako bigarren zikloa.

Artículo 2.– Destinatarios.

1.– Podrán participar en el concurso los centros escolares públicos y privados de la Comunidad Autónoma del País Vasco que impartan ciclos de educación primaria y secundaria obligatoria.

2.– Los trabajos deberán realizarse en el ámbito escolar y bajo la supervisión y tutoría de personal docente de los centros educativos. Se realizarán de forma colectiva y únicamente se admitirá un trabajo por aula.

Artículo 3.– Órgano gestor.

La gestión de la presente convocatoria corresponderá a la Dirección de Salud Pública del Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco.

Artículo 4.– Características de los diseños.

1.– El diseño debe reflejar y transmitir la importancia de la vida saludable para todas las personas, incorporando algún elemento que haga referencia a la actividad física, alimentación sana o los entornos saludables.

2.– Los diseños se realizarán de conformidad con las siguientes características técnicas:

a) El diseño del elemento identificativo puede consistir en una ilustración o gráfico, un texto o una combinación de ambos. En cualquier caso el texto deberá contener menos de cinco palabras.

b) Cada aula participante podrá presentar un único trabajo realizado en cartulina o papel cuyas medidas máximas no excedan el tamaño DIN A3 horizontal (42 cm x 29,7 cm).

c) El logotipo deberá poder reducirse de forma visible a un tamaño mínimo de 7 x 2 cm.

d) En la confección de los trabajos podrá emplearse cualquier procedimiento o técnica.

e) Ningún trabajo deberá ir enmarcado.

f) En la propuesta no debe aparecer ningún elemento que identifique el centro.

g) Solo se podrán presentar trabajos originales.

Artículo 5.– Modalidades del concurso por categorías y dotaciones de los premios.

1.– El concurso constará de cinco categorías:

– Categoría 1: primer ciclo de educación primaria.

– Categoría 2: segundo ciclo de educación primaria.

– Categoría 3: tercer ciclo de educación primaria.

– Categoría 4: primer ciclo de educación secundaria obligatoria.

– Categoría 5: segundo ciclo de educación secundaria obligatoria.

2.– Sarien zuzkidura:

a) Sari nagusi bat, 6.000 eurokoa, BOEaren elementu identifikatzaile gisa aukeratutako proposamenari.

b) 2.000 euroko sari bana bost heziketa zikloei.

3.– Saritzat jasotako dirua ariketa fisikoaren edo elikadura egokieren sustapenarekin zerikusia duten jardueretan edo materialetan inbertituko da, bai gelarako, bai ikastetxerako.

4.– Ikastetxe bakoitzak ezingo du 2. paragrafoan ezarritako sari bi baino gehiago jaso.

6. artikulua.– Eskaerak aurkezteko tokia eta epea.

1.– Eskaerak aurkezteko epea 2009ko martxoaren 24an amaituko da.

2.– Eskabideak Osasun Sailaren Osasun Publikoko Zuzendaritzan (Donostia kalea 1, PK: 01010, Vitoria-Gasteiz) aurkeztuko dira, edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean aurreikusitako bideetariko edozein erabiliz.

7. artikulua.– Eskaerak eta aurkeztu beharreko agiriak.

1.– Eskabidea egiteko, honako honi lotutako eranskina bete eta aurkeztu egin behar da, eta ikastetxeko ordezkari legalak eta gelako tutoreak sinatuko dute.

2.– Proposamena eta motibazioa hobeto ulertzeko eskabideari azalpen-laburpen bat erantsiko zaio.

8. artikulua.– Epaimahaia.

1.– Lanak ebaluatzeko eta Saria nori eman erabakitzeko epaimahaia sortuko da, Osasun sailburuordeak izendatua, eta Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da kideen zerrenda.

2.– Epaimahaiak ondoko kideak izango ditu:

Lehendakaria: Osasun Publikoko zuzendaria.

Lehendakariordea: Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria.

Kideak:

– Osasun Saileko 2 ordezkari.

– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko 2 ordezkari.

Idazkari lanak Osasun Saileko ordezkari batek egingo ditu.

2.– Dotaciones de los premios:

a) 1 premio principal por valor de 6.000 euros, para la propuesta seleccionada como elemento identificativo de la EVS.

b) 1 premio por valor de 2.000 euros por cada uno de los cinco ciclos educativos.

3.– Estos premios se invertirán en actividades o materiales relacionados con la promoción de la actividad física o la alimentación saludable, bien sea para beneficio del aula o del centro educativo.

4.– Será incompatible la percepción por un centro escolar de más de dos premios, de los establecidos en el párrafo 2.

Artículo 6.– Lugar y plazo de presentación de los trabajos.

1.– El plazo para la presentación de los trabajos finalizará el 24 de marzo de 2009.

2.– La documentación será dirigida a la Dirección de Salud Pública del Departamento de Sanidad, c/ Donostia-San Sebastián, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz y presentada en el registro general de dicho Departamento, o en cualquiera de las dependencias previstas en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Artículo 7.– Solicitud y documentación a presentar.

1.– La solicitud se cumplimentará según el modelo de solicitud que acompaña en anexo a esta Orden, y será firmada por el/la representante legal del centro escolar y el tutor/a del aula.

2.– La solicitud irá acompañada de un resumen explicativo de la propuesta para permitir su mejor comprensión y motivación.

Artículo 8.– Jurado.

1.– Para la evaluación de los trabajos y la consiguiente emisión del fallo del Premio se constituirá un jurado, nombrado por el Viceconsejero de Sanidad, cuya composición será objeto de publicidad en el Boletín Oficial del País Vasco.

2.– El jurado tendrá la siguiente composición:

Presidenta: Directora de Salud Pública.

Vicepresidente: Director de Innovación Educativa.

Miembros:

– 2 representantes del Departamento de Sanidad.

– 2 representantes del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

Actuará como secretario un representante del Departamento de Sanidad.

3.– Epaimahaiaren osaketa Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3,7. artikuluko Printzipio Orokorretan oinarritua egingo da.

4.– Erabakiak bertaratutako kideen gehiengo soilez hartuko dira. Berdinketak lehendakariaren kalitatezko botoaren bitartez ebatziko dira. Idazkariak jarduketen eta hartutako erabakien akta egingo du.

5.– Epaimahaiak bere erabakia hartuko du, ondorengo artikuluan ezarritako irizpideak kontuan hartuz.

9. artikulua.– Baloratzeko irizpideak.

Balorazio-irizpide hauek erabiliko dira:

1.– Lana 3. artikuluan dakarrenari egokitzea, % 40 arte.

2.– Diseinua, originaltasuna eta izaera berritzailea, % 30 arte.

3.– Diseinua partaideen adinera egokitzea, % 30 arte.

10. artikulua.– Sariak ematea.

1.– Epaimahaiak sariak emateko proposamena egingo du eta bertan hartutako akorduaren arrazoiak adieraziko ditu.

2.– Epaimahaiaren proposamena ikusirik, Osasun sailburuordeak dagokion ebazpena hartuko du.

3.– Ebazpena ikastetxe sarituei banan-banan jakinarazteaz gainera, EHAAn argitaratuko da, sei hilabeteko epean agindu hau indarrean sartzen denetik aurrera. Adierazitako gehienezko epearen barruan berariazko ebazpenik ez badago, eskaria ezetsi egin dela ulertu beharko da.

4.– Epaimahaiak esleitzeke utz dezake saria, aurkeztutako lanek eskatutako kalitatea ez dutela uste badu.

11. artikulua.– Publizitatea eta sariak ematea.

1.– Sari banaketa ageriko ekitaldian egingo da, behin epaimahaiak bere erabakia eman ondoren.

2.– Osasun Sailak aukeratutako elementu identifikatzailea bizitza osasungarriaren sustapenarekin zerikusia duten jarduera guztietan erabiltzeko konpromisoa hartzen du egokitzat jotzen duen denbora-aldian.

3.– Osasun Sailak bere nahierara erakusketak egin ahal izango ditu epaimahaiak aukeratutako lanekin.

4.– Sarien ordainketa hiru hilabeteko epean egingo da, gehienez, saritutako zentroek onarpena ematen duten egunetik hasita.

12. artikulua.– Saritutako zentroen betebeharrak.

Saritutako zentroen betebeharrak:

a) Saria onartzea. Zentzu horretan, diru-laguntza eman zaiola jakinarazten zaion egunetik hasi eta hama-

3.– En el momento de formar el jurado, se cumplirá lo establecido en el artículo 3.7 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

4.– Los acuerdos serán adoptados por mayoría simple de votos emitidos, pudiendo dirimir la Presidenta los empates que se puedan producir. El Secretario levantará acta de cuantas actuaciones y acuerdos se adopten.

5.– El Jurado emitirá su fallo, teniendo en cuenta los criterios establecidos en el artículo siguiente.

Artículo 9.– Criterios de valoración.

Se aplicarán los siguientes criterios de valoración:

1.– Adecuación del trabajo a las características a que se refiere el artículo 3, hasta un 40%.

2.– Diseño, originalidad y carácter innovador, hasta un 30%.

3.– Adaptación del diseño a la edad de los participantes, hasta un 30%.

Artículo 10.– Fallo del premio.

1.– El Jurado formulará una propuesta de concesión del premio, en la que expresará las razones que justifican el acuerdo adoptado.

2.– Una vez vista la propuesta del jurado, el Viceconsejero de Sanidad adoptará la correspondiente resolución.

3.– La resolución será adoptada y publicada en el BOPV en el plazo máximo de seis meses desde que surta efectos la presente Orden, sin perjuicio de la notificación individualizada a los centros escolares premiados. La ausencia de resolución en dicho plazo tendrá efectos desestimatorios de la solicitud correspondiente.

4.– El fallo del premio podrá consistir en la declaración de desierto del mismo, cuando el jurado estime que ninguna de las obras reúne los requisitos de calidad exigibles.

Artículo 11.– Publicidad y entrega de premios.

1.– La entrega de premios se realizará en un acto público una vez emitido el fallo del jurado.

2.– El Departamento de Sanidad se compromete a emplear el elemento identificativo seleccionado en todas sus actuaciones relacionadas con la promoción de vida saludable, y se reserva la posibilidad de realizar modificaciones no sustanciales sobre el mismo.

3.– El Departamento de Sanidad se reserva la posibilidad de realizar una exposición con los trabajos seleccionados por el jurado.

4.– El abono de los premios se realizará en un plazo máximo de tres meses a partir de su aceptación por los centros premiados.

Artículo 12.– Obligaciones de los centros premiados.

Serán obligaciones de los centros premiados:

a) La aceptación del premio. En este sentido, si en el plazo de quince días tras la fecha de la publicación de

bost eguneko epean onuradunak diru-laguntzari beren beregi uko egiten ez badio, diru-laguntza onartu egin duela ulertuko da.

b) Osasun Sailari dohainik eta gehienez 5 urteko epean aukeratutako diseinuen eskubideak uztea, egileen dagozkien gainontzeko eskubideei eta jabetzari kalterik egin gabe.

c) Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, beren eginkizunetan dihardutela, deialdi honen kontura jasotako diru-laguntzen inguruan eskatzen dieten informazioa ematea.

13. artikulua.– Isilpekotasuna.

Deialdi hau isilpekotasun-arauei eta datu pertsonalen tratamenduan hartu beharreko neurriei lotuta dago, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak ezarritakoari jarraiki.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Agindu honetan aurreikusi ez den guztian, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean xedatutakoa ezarriko da.

Bigarrena.– Agindu honek amaitu egiten du administrazio-bidea. Bere aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa ezar dakioke Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita, hilabeteko epean; bestela administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ezar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salan, agindua EHAAn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita, bi hilabeteko epean.

Hirugarrena.– Agindu honek EHAAn argitaratu eta hurrengo egunean izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko urtarrilaren 27a.

Osasun-sailburua,
GABRIEL M.ª INCLÁN IRIBAR.

la Resolución de concesión del premio, los beneficiarios no renuncian expresamente y por escrito al mismo, se entenderá que éste queda aceptado.

b) Ceder al Departamento de Sanidad de forma gratuita y por un periodo máximo de 5 años los derechos inherentes a los diseños seleccionados, sin perjuicio de la propiedad y la disposición del resto de derechos inherentes a la autoría de los trabajos que corresponde a sus autores/as.

c) Facilitar a la Oficina de Control Económico y al Tribunal Vasco de Cuentas la información que, en el ejercicio de sus funciones, les sea requerida en relación con los premios recibidos con cargo a esta convocatoria.

Artículo 13.– Confidencialidad.

La presente convocatoria está sujeta a las reglas de confidencialidad y a las medidas a adoptar en el tratamiento de datos de carácter personal contemplados en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– En todo lo no previsto en la presente convocatoria será de aplicación supletoria la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Segunda.– Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, podrán los interesados interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejero de Sanidad, en el plazo de un mes a partir del día siguiente a su publicación en el BOPV, o directamente recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia de Euskadi en el plazo de dos meses a partir del día siguiente a su publicación en el mismo diario oficial.

Tercera.– La presente Orden surtirá efectos a partir del día siguiente al de su publicación en el BOPV.

En Vitoria-Gasteiz, a 27 de enero de 2009.

El Consejero de Sanidad,
GABRIEL M.ª INCLÁN IRIBAR.

ERANSKINA

ESKAERA-EREDUA

BIZIMODU OSASUNGARRIRAKO ESTRATEGIAK (BOE) IDENTIFIKATZEKO ELEMENTUAREN DISEINU-LEHIAKETA.

Ikastetxearen izena……

Ikastetxearen kodea……

Ikastetxearen egoitza:

Helbidea: ……

Udalerria.....KP .....

Telefonoa: ……..…….... Faxa: ..... Posta elektronikoa: .....

Ikasgela .....

Parte hartu nahi den lehiaketaren modalitatea (Jarri X bat)

☐ 1. kategoria: lehen hezkuntzako lehen zikloa.
☐ 2. kategoria: lehen hezkuntzako bigarren zikloa.
☐ 3. kategoria: lehen hezkuntzako hirugarren zikloa.
☐ 4. kategoria: derrigorrezko bigarren hezkuntzako lehen zikloa
☐ 5. kategoria: derrigorrezko bigarren hezkuntzako bigarren zikloa

Erantsitako dokumentazioa (Jarri X bat)

☐ Eskaera-eredua
☐ BOEaren elementu identifikatzailearen diseinua
☐ Proposamenaren azalpen gisako laburpena

Data

	.....	.....
Sinadura:	Zentroko ordezkari legala	Ikasgelako tutorea
	(Izena eta bi abizenak)	(Izena eta bi abizenak)

OSASUN PUBLIKOKO ZUZENDARIA. OSASUN SAILA

Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa betez, Jaurlaritzaren Osasun Sailak jakinarazten dizu eskabide honetan emandako datu pertsonalak «Diru-laguntzak jaso dituzten entitateak» izeneko fitxategian sartuko direla, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Osasun Publikoko Zuzendaritzaren erantzukizunpean, eta irabazi asmorik gabeko entitateentzako laguntza ekonomikoak kudeatzea izango da helburua.

Nahi izanez gero, datuak ikusteko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta horien aurka egiteko Legean aurreikusitako eskubideak balia ditzakezu, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren Osasun Publikoko Zuzendaritzari idazki bat bidalita (helbidea: Donostia kalea, 1, Vitoria-Gasteiz).

ANEXO

MODELO DE SOLICITUD

CONCURSO PARA EL DISEÑO DE UN ELEMENTO IDENTIFICATIVO DE LA ESTRATEGIA DE VIDA SALUDABLE

Nombre del centro: .....
Código del centro: .....
Sede social del centro:
Dirección: .....
Municipio: .....CP: .....
Teléfono de contacto: ..... e-mail: .....
Aula: .....

Modalidad de premio a la que se opta (Marcar con una x)

☐ *Categoría 1: primer ciclo de educación primaria*
☐ *Categoría 2: segundo ciclo de educación primaria*
☐ *Categoría 3: tercer ciclo de educación primaria*
☐ *Categoría 4: primer ciclo de educación secundaria obligatoria*
☐ *Categoría 5: segundo ciclo de educación secundaria obligatoria*

Documentación que se adjunta (Marcar con una x)

☐ *Modelo de solicitud*
☐ *Diseño del elemento identificativo de la EVS*
☐ *Resumen explicativo de la propuesta*

Fecha

	.....	.....
Firma:	*Representante legal del centro*	*Tutor o tutora del aula*
	(Nombre y dos apellidos)	*(Nombre y dos apellidos)*

SRA. DIRECTORA DE SALUD PÚBLICA. DEPARTAMENTO DE SANIDAD

En cumplimento de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, se le comunica que los datos personales que Vd. aporta en este impreso serán incluidos en el fichero «Entidades perceptoras de ayudas», bajo la responsabilidad de la Dirección de Salud Pública del Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco y cuya finalidad es la gestión de la concesión de ayudas económicas a entidades sin ánimo de lucro.

Si lo desea, puede ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición dirigiendo un escrito a la Dirección de Salud Pública del Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco, en c/ Donostia-San Sebastián, n.º 1. 01010 Vitoria–Gasteiz.